

Ariketa

Maidar IANTZI GOIENETXE

Zure egonarri eta isiltasuna, bizi luze eta ugalkortasuna, zerbait sakratua duzu. Zenbat iheslari babestu ote duzun, arrazoiarekin edo gabe akusatutako zenbat. Mespretxatua zara, mugitzen eta mintzatzzen ez zarelakoan, baina ez da egia. Bertzerik da gure zentzumenak nola, norantz ditugun.

Zerbait egin orduko, egiten dugun hori iragan bilakatzen da. Dena gertatua dela dirudi. Baina zuk, natura zarenez, fosilizatzeari uko egiten diozu. Gu ere, zure gisa, natura gara, Lurra txiki geldi-

tu zaigun arren. Planeta ez da edonola erabili eta nola uzten dugun kezkatu gabe abandonatu dezakegun objektu bat; hor dago, eta natura bera baino gehiago harekiko dugun jarrera dago arriskuan.

John Fowlesek badu saiakera bat zuri eskainia, “Zuhaitza” (The Tree, 1979). Bertan, arbolaren eta sorkuntzaren arteko lotura arakatzen du. Dioenez, gauero itzultzen gara kaos berdera, basoen saskonuneetara. Gutako bakoitza hosto berezi batzuen giblean ezkutatzen da eta horietatik esperimentatzen du. Horregatik, ezin da edozein arte motak prakti-

katzean edo ezagutzean sortzen digun poz betea erakutsi. Horregatik, edozein artelanetan ordezkazina ez da teknika, ezta ofizioa ere, artistaren sentsibilitatea eta izaera baizik. Ez sormena, ez natura, ezin dira esplikatatu. Ustekabekoak eta ausazkoak dira; makinen aurkakoak, alegia.

Edozein artetan, gure parte basatienaren aldera erretiratzen gara, gordea, kontrolatua eduki ohi dugun zati horretara. Leku konplexua da, ekintza baino gehiago ahalmena. Zutabe hau ere ariketa hori da, askatasunaren bilaketa. •

Udaltzainak eta armak

Udaltzain guztiek armak eraman beharko dituzte. Zehazki, 9mm parabellum kalibreko pistolak. Udaltzainak Koordinatzeko Batzordeak Legebiltzarrean aurkeztu berri du proposamena eta EAJ, PSE-EE, PP-CC's eta VOX alderdien babesarekin laster jarriko dute indarrean.

Baina, zer zentzu du ikastolako haurren segurtasuna bermatzeko zebrabidea zaintzen duen udaltzainak pistola gerrian eramatea? Zer gertakari larri eman da Usurbilen (6.200 biztanle), azken 50 urteetan, non Ertzaintzak ezin

zuen esku hartu, eta Udaltzaingoak konpon zezakeena?

Balarik gabeko armekin moldatu dira orain arte herri askotan. “Bang!” soil bat eta herritarra hil dezakeen bala eraman behar izateko arrazoi izugarriak eman beharko lituzke Jaurlaritzak. Batzordeak dioenez, udaltzainen %80ak darama pistola. Erabakia udal bakoitzaren eskumenekoa izan arren, ulertzekoa da, jasaten duten presioagatik. Baina udaltzainen %100i, herri txikietakoei barne, pistola ezartzeko obsesioa zertarako?

Segurtasunarekiko udalen eskumen apurra apurtu eta Jaurlaritzaren mende-

ko bilakatzeko (arauak, formakuntza, praktikak)? Armen euskal lobbya gehiago aberasteko (pistolak, balak, txalekoa)?

Finean, Jaurlaritzak udaltzainak er-tzaindu egin nahi ditu, udaltzainek herritarrekiko duten hurbiltasuna eta onespen edo maila bere egiteko. «Auctoritas Udaltzaingoa, potestas Ertzaintza». Kostako zaie hainbeste urtetako eta eguneroko jarduneko harrokeriak sortutako gorrotoa biguntzea; kasaka gorriak urdinu baino zerbait gehiago egin beharko dute. Hasteko, Jaurlaritzaren polizia eredia eraldatu; gutxienez, ertzainak udaltzaindu... •

**Xabier Mikel
ERREKONDO**